

Korrika

17. KORRIKA dugu aurtengoa, eta apirilaren 13an zeharkatuko ditu Itsasondoko kaleak euskararen maratoniak. Apirilaren 7an Trebiñon hasiko du ibilbidea euskaren lekukoak, eta hamar egun ondoren, apirilaren 17an Donostian amaituko da KORRIKA. Maitatu, ikasi, ari..euskalakari, aurtengo KORRIKAREN leloa.



KORRIKARI behar bezelako harrera egin asmoz, hau da Korrika Kulturalaren barruan antolatu dugun egitaraua:

- Martxoak 25: bertso-afaria
- Apirilak 1: antzerki emanaldia, "Prest gaude" obra, 22:00etan, aterpe itxian.
- Ipuin marrazki lehiaketa udala-eskolak antolatu du. Ikastolako haurrek marrazki eta ipuinak egin beharko dituzte. Adinka sailkatuta, gai desberdina landu beharko du talde bakoitzak. Apirilaren 8an lanak entregatu behar dituzte herriko liburutegian eta sariak, apirilaren 15ean ospatuko den Korrika txiki egunean banatuko dira.
- Apirilak 13: KORRIKA
- Apirilak 15: Korrika txikia. Arratsaldeko 5etan Aramatik jaitsierra. Ondoren, txokolatada eta gazteek antolatutako jolasak.

Esatera zaharrak

"Amari egindako zorrak ez dira inoiz ordaintzen"

"Aita biltzaile, seme gastatzaile"

Kultur Agenda

Apirila

- 01: Antzerkia, 22:00etan (Prest gaude).
- 03: Mendi irteera: Itsasondo-Usurbil-Beasain.
- 08: Ipuin lehiaketarako lanak aurkeztu behar dira.
- 09: Itsasondoko I. herri eguna. Festa herrian zehar.
- 13: Korrika.
- 15: Korrika txikia.

Maiatza

- Dantza entsaioak hasiko dira San Juanetarako, sorgin dantza ikasteko.
- 15: Mendi irteera.
- 28: Dantzari eguna.

Ekaina

- 02: Dolomitak, ikusentzunezkoa, 20:00etan gaztelekuan.
- 04: Oriora irteera.
- 23: San Juan bezpera.

Telefono interesgarriak

Udaletxea 943 881170
• **Gizarte Langilea**
• **Udal Arkitektoa**
• **Epaitegia**

Haurreskola 943 164831
Herri Eskola 943 887704
Arbel-Aitz Elkarte 943 881339
Lurdes Janari Denda 943 885236
Arrastoa Botika 943 882148
Medikuarenean Txanda Hartzeko 943 805800

Kaxintane Taberna 606 756551
Nautiko Taberna / Izaskun Hotela 943 880012
Izaskun Ileapaindegia 943 160285

Sasieta 943 161555
Traste Zaharrak 943 161590
Taxi (Ordizia) 943 881486

itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria ((12. zk)) Martxo-Ekaina 2011

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Martinez Maita
Ainara Urteaga
Arantzadi Elkarte
Axier Bazaga
Belen Mendizabal
Danel Etxeberria
Eskolako haurrak
Haizea Arruti
Haurreskolako Hezitzaileak
Iker Mendizabal
Iker Zaldua
Jose Ignazio Duhau
Jubilatuak
M^a Jose Arrizabalaga
Maite Lasa
Maite Riaño
Maixabel Garmendia
Mikel Mendizabal
Miren Seguro
Rosa Aurkia
Rosi Noguera
Unai Agirre

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70
itsasondo2.0@itsasondo.net

Lege gordailua: ISSN:
SS-297-2010 2171-5572

**GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
EKAINEAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN**

itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria ((12. zk)) Martxo-Ekaina 2011

Txikienek iñauteriak gogoko dituzte



Zabor bilketa berria badator!
Arbelgintza: azken atala
Saioa Barandiaran, ikasketak Herbehereetan

Kaixo irakurle!

Aro politiko berri baten aurrean gaudela esateko motiborik bada. Ezker Abertzaleak mahai gainean jarri berri du bere apustu politikoa, bide demokratiko eta baketsuen aldeko konpromisoa hartu duela iragarri. Sortu izango da borondate honi erantzungo dion alderdia, baina eszenatoki berri honen altzoan ere hauteskak harroturik dabilta udal eta foru hauteskundeetan etorrera hurbila iragar daitekeelarik. Euskal gizartearen gehiengo zabalak Sorturen berehalako legeztatzea aldarrikatu du behin eta berriro, bada Espainiako auzitegiek ez dute normalakuntza politikoa aldeko hauturik gaurdaino egin.


Testuinguru honen atarian ailegatu zaigu Itsasondoko herri aldizkariaren 12.ale hau. Euskal Herrian bezalaxe, gure herri kokorren ere bada zer kontatu andana. Aurrerapen gisara, Arbelaitz elkartearen 50. urtemuga eta arbelaren histori mamitsuaren inguruko azken kontakizunak izango ditugu mintzagai. Ijito Egunaren argazkia ere osatu nahi izan dugu eta elkarrizketen atalera joaz, Saioa Barandiaran herritarrarekin izandako solasaldia topatuko duzue. Kontu hauek eta gehiago, ohi bezala udaletxeko berriak, haur eta herri eskolaren inguruko albisteak eta errezeta goxoxoa eskura.

Gozatu Itsasondo 2.0-rekin!

Hurrengora arte eta bitartean kontent bizi!

Itsasondoko biztanleriaren bilakaera

2010. urtean jaio eta Itsasondon erroldatuta daudenen zerrenda: Egoitz, Natalia, Ager, Maddi, Urko, Ilektra, Nahia, Xabat, Lore, Noa, Ixone, Jakes, Markel eta Adur.



Sarrerako bertsoak

DOINUA: *Andre Madalen*

Ale honetan aipa nabi degu ospakizunen atala alde batetik, Arbelaitzek du mende erdiko itzala; bestetik, berriz, arbel mehatzek azken emari bezala osotasunez itxiko dute hain istorio zabala.

Ijitu berrian ijitto egunak bere arrazoia badu, Erasmuseko sariarekin Saioa pozik behar du, udaletxe ta herri eskolako berririk ezin itzald... gazteriaren oihua entzun ta errezetarik ez galdu.

- 03. **Udaleko berriak:** 2011.ko Udal aurrekontuak.
- 04-05. **Eskola:** Lehen txiki ginenok ia handi gara.
- 06. **Haur eskola:** Hezkidetza, ba al dakigu zer den?
- 07-09. **Elkarrizketa:** Saioa Barandiaran, Erasmusen bidez, Herbehereetan ikasten.
- 10. **Agenda 21:** Zabor bilketa sistema berria.
- 11. **Inketa:** Martxoak 8.
- 12-13. **Gazteria:** Itsasondoko gazteriaren hainbat kontu.
- 14-15. **Arbelgintza Itsasondon:** Arbolaren Memoria (eta IV)
- 16-17. **Zaharrak berri:** Arbel-aitz, 50 urte.
- 18. **Arantzadi:** 2011.urterako ekimenak.
- 19. **Gizartea:** Ibilgailua aparkatzeko txartela.
- 20-21. **Ibilaldia:** Itsasondo-Izarre-Zabale-Itsasondo.
- 22. **Informatika:** Ikusi makusi.
- 23. **Jubilatuak:** Orain larogei urteko eskolak.
- 24-25. **Kultura.**
- 26. **Liburuaren txokoa.**
- 27. **Lorezaintza eta sukaldaritzza.**
- 28. **Korrika. Esaera zaharrak. Kultur agenda.**



2011ko Udal aurrekontuak

2011ko martxoaren 16ean egindako Udal bilkuran, 2011ko Udal aurrekontuak onartu ziren.

Aurrekontu horretan ondorengo atalak azpimarratuko genituzke:

Aurrekontua guztira: 947.000 €

Diru-sarrera aldetik, kopuru garrantzitsua Foru Aldunditik urtero jasotzen den Foru Fondoaren transferentzia da, 398.550 €.

Laburpena, ondorengoa da:

Sarrerak	
Udaleko zergen kantitatea	130.000 €
Udaleko tasak	98.000 €
Maileguen aurreikuspena	250.000 €
Beste sarrera batzuk	70.000 €
Foru Fondoa	399.000 €

Guztira 947.000 €

Ordainketak	
Soldata eta Gizarte Segurantzza	217.000 €
Zerbitzuak eta mantenimendua	285.000 €
Transferentziak mankomunitate e.a.	110.000 €
Inbertsioak	275.000 €
Maileguen finantziak	60.000 €

Guztira 947.000 €

Gastuei dagokionez, azpimarratzekoa da Itsasondoko Udalak 2002an Oriia ibaia bideratzeko obretarako hitzartutako 168.000 €tako mailegua likidatu egingo duela aurrean. Hala ere, berriro aurtengo urteko inbertsioei aurre egiteko mailegu berri bat eskatzea aurreikusten da. Egin beharreko inbertsioa UDALETXEKO BERRIKUNTZA obra da, eta proiektua oraindik amaitu gabe badago ere, lehen fasearen aurrekontua 750.000 €koa izango da. Zati handiena dirulaguntza bidez eskuratuko da eta dirulaguntzak estaltzen ez duen diru kopurua Udalak jarri beharko du.

Ibilgailu elektrikoaren erosketa

Egindako bilkura berean, Udal eginkizunetarako ibilgailu elektriko bat erostea ere erabaki zen. Ibilgailuaren kostua finantzatzeko 13.000 €ko laguntza lortu denez, Udalak 5.000 € baino ez ditu jarri beharko.

UEMAren mozioa umeak euskeraz inskribatzeko eskubidearen alde

Azkenik, batzar berean Bake epaitegietan eta erregistro zibiletan euskeraz aritu ahal izateko eskubidea bermatu dadila eskatzea erabaki zen, UEMAK proposatutako mozioa onartuz. Mozio horren arabera, Eusko Jaurilaritzari jaiotza erregistroa, ezkontza erregistroa eta heriotza erregistroa euskeraz egin ahal izateko neurriak hartzeko eskatzearekin batera, herritar euskaldunei bake epaitegian zerbitzua euskeraz eskatu, eta zerbitzua euskeraz jasotzeko ezean, erreklamazioak jartzeko deia egiten zaie.

Lehen txiki ginenok ia handi gara...

Eta, zenbat hazten gara urtero? Nolakoa izango ote naiz ni hurrengo urtean? Hori jakin ahal izateko, gure eskolako ume guztiak neurtu ditugu, txikienetik hasi eta handienetara. Eta, batzuek beste taula bat egin ondoren, iupi!, badakigu gutxi gorabehera datorren urtean zenbat neurtuko dugun!



Osasuntsu hazteko elikadura egokia ezinbestekoa denez, Txisku (Ordiziako Goierriko Baratza dendakoa) etorri zitzaigun eskolara horri buruz kontu batzuk esatera, eta sagar zuku goxo-goxoa ekarri zigun.



Ipuin pila bat irakurtzen eta sor-tzen ditugu. Lanbideei buruzkoak... Itsasoari buruzkoak...



Itsasoari buruzkoak esan al dugu? Bai, horixe. Itsasoari buruz gauza asko ikasi ditugu, animalia desberdinak, nola jaiotzen eta hazten diren, zer jaten duten... Ah! Kate trofiko bat egin dugu denon artean.



Horrez gain, itsasoa eta gure planeta osoa zaintzea zein garrantzikoa den ere ikusi dugu.



Gure planeta eta unibertso osoa nolakoak diren ikasten eta espaziora bidaia txiki bat prestatzen ari gara, NASAkoak bezalaxe.

Beno, guk gure ingurua aztertzen jarraituko dugu, eta nahi baduzue, bisitan etorri.

Agur. ■



Hezkidetzak, ba al dakizu zer den?

Zer da hezkidetzak? Kurtso honetan, haur-eskolatako hezitzaileok buru-belarri sartu gara gai honetan. Haur-eskoletan nola hezi haurrak hezkidetzan oinarritutako hezkuntza baten bidez.

Oraingoan, gu bihurtu gara ikasle eta hezkuntzan zein etxean, zeregin handia badagoela konturatu gara. Gure gizartean, urteetan zehar ematen diren rolak hausteko, eta batez ere, mutil eta nesken artean arlo askotan berdintasun batera iritsi beharra dago. Horregatik, jarraian aurkezten dizkizuegu zenbait argibide.



Guk zuekin hezkidetzari buruz hausnarketa konpartitu nahi dugu. Kontziente gara, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak gehienak gure gizarteak eta kulturak ezarritakoak direla, eta ondo barneratuak dauden rolak direla, beti ere desberdintasun biologikoak onartuz, noski. Horretaz konturatzeko, ordea, zentzu analitikoak behar da, eta gaiari distantziaz begiratu, detaile zehatzetan erreparatzeko. Ondo egongo litzateke guk geuk haurrak hezterakoan neska eta mutilei trataera berdina ematen diegun erreparatzea, edo desberdintasunak egiten ote ditugun konturatzeko. Izan ere, kalera ateratzen bagara, edo jostailu katalogoei pixka bat erreparatzen badiegu, modu oso argian ikus daiteke, bizitzako lehen 10 urteetan norantz bideratzen ditugun neska eta norantz mutilak. Jaio eta 3 urtera arteko jostailuak nahiko neutroak dira, eta neska edo mutila izan kolore desberdinak erabiltzen ditugu gehienetan, haurrak oraindik ez duela sortu ez sexu identitaterik ez genero identitaterik. Jaiotzetik arau kulturalak ikasten doaz eta norekin eta zerekin identifikatu ikasten dute (esaterako 3 urteko mutiko batek badaki mutilek ez dutela koletarik jartzen, kalean hori ikusten duelako, etab).

Horrela, 6 urteko neskei soka eskaintzen zaie jostailu katalogoetan (sokak berak espazioaren erabilera mugatzen du); mutilari berriz, patine-

tea (espazio zabala eskatzen duena). Alegia, ekintza eta jarrera ezberdinetan trebatzen dira neska eta mutilak. Hau guztia jakinda, objektu edo jostailu bakoitzaren atzean ze arlo edo rol ezkututzen diren eta horiek zer eragin duten gure haurrengan baloratu behar genuke, eta horren ondorioz lortuko genituzke aldaketak. Haurrak txikitan, espontaneoak dira eta jostailu guztiekin jolasten dute (zein kamioi zein aulkixoarekin) eta pixkanaka ikasi egiten dute, gizartean ikusten dutena absorbitzen dute eta gure eragina ere nabarmena da genero rolak sortzerako garaian.

Liburuen gaiari ere begiratu bat eman behar diogu. Txikieneztat erosten ditugun liburuetan, zer ikusten da? Modan dauden bilduma askotan fija-tzen bagara, emakumea erosketak egitearekin, anai-arreba berriarekin edo amatasunarekin lotzen da ia beti. Gizonezkoa, berriz, eskolarekin, sozializazioarekin... Haurrei joko sinbolikoa aritzeko etapa iristen zaienean, guzti hori (rol desberdinak barne) erreproduzitu eta barneratu egiten dituzte. Ondo egongo litzateke, guztiok horren guztiaren inguruko hausnarketa bat egitea, eta argi izatea zein bide jarraitu nahi dugun gizarte honetan parte hartzeko eta ze rol hartu nahi dugun. Izan ere, haurrak txiki txikitik barneratzen ditu rolak (imitatu egiten gaituzte) eta guk beraien eredu izan beharko genuke.

Badaude kontuan hartu beharko liratekeen beste aspektu batzuk ere, eta inkontzienteki izaten ditugun jarrerak dira gainera, esaterako, kolore bakoitza nori eskaini, koletak, pintaketak... Azkenean, hori guztia ere kulturalki ikasi edo jaso dugu, eta oraindik aldatu ez da aldatu.

Baina tira, gure aldetik, haur-eskolaren eta eskolaren egitekoa izango litzateke harremanak modu positiboan eraikitzeak aukera ematea neska eta mutilei (gizartean jasotzen dituzten harreman ereduak zalantzan jarriz). Pertsonaren garapen integrala lortu behar da (pertsonaren bost dimentsio landu: identitatea, gorputza, gogoia edo adimena, gizartea eta emozioak edo arlo afektiboak), neska eta mutilentzat eredu berdina proposatuz.

Hau guztia kontuan hartuta, esan behar dugu berriz ere arreta handia jartzea komeni dela gure txikiei liburu bat edo jolas bat erosten diegun bakoitzean, eta gure hizkuntza eta jarrera ere aztertu behar ditugula, beraien eredu garelako. Egunerokotasuna aztertzea da gakoa. Norbaitek informazio gehiago nahiko balu, EMAISIA elkarteak eta Urtxintxa eskolak eskuliburu bat atera dute (Jarduera hezkidetzailerako eskuliburu), Emakunde saria jaso zuena 2001ean, eta praktikarako orientabide zehatzak eskaintzen dituenak.■



Saioa Barandiaran

Erasmusen bidez, herbehereetan ikasten

Gure herriko Saioa, Europan zehar ibili da, Erasmusen bidez, maisu-maistra karrera ikasten. Elkarrizketa honetan, Erasmuseko ikasleen mundura gerturatu gaitu, eta bertan izan dituen esperientziak eta gorabeherak kontatu.

Sarrera moduan, irakurleak kokatzeko, zein da Saioa?

Saioa Itsasondon jaiotako hogeitau urteko neska bat da. Ikasketak Itsasondoko Herri Eskolan hasi nituen eta ondoren Ordiziako Oianguren Institutuan jarraitu. Selektibitate gaitu ondoren, Unibertsitaterako bidaian, psikologia eta maisu-maistra ikasketen artean dudak izan nituen, baina haurrak asko gustatzen zaizkit, eta orain, Haur Hezkuntzako Maisu-maistra karrerako azken urtean nago, hau da, hirugarren urtean, HUHEZIN (Mondragon Unibertsitatean).

Karrera bukatzean, ikasketekin jarraitzeko asmorik baduzu?

Bai, lehen beste urte bat gehiago nahiko zen espezializazioa egiteko, ikasgaiak balioztatzen zizkizueten, baina orain ez. Orain, Masterra edo hiru urteko espezializazioa egin beharra daukazu.

Zein espezializazio gustatuko litzazuke egitea?

Heziketa fisikoa gustuko dut, baina orain atzerrian hartu dudana esperientziarekin, Atzerriko Hizkuntza hartuko dut seguru-erik.

Esperientzia hori aipatu duzunez, atzerrian ikasteko aukera izan duzu?

Bai, karrerako bigarren urtean nengoela, Erasmusen bidez, atzerrian ikasteko aukera sortu zitzaidan. Hasieran pixka bat urruti ikusten nuen, eta beldurra ere ematen zidan; baina, inguruko beste lagun batzuek ere joan behar zuten, animatu egin nintzen.

Azalduko al zeniguke zer den Erasmus?

Erasmus da hainbat herrialdeetako unibertsitateko ikasleek artean egiten den elkartrukea. Normalean unibertsitate guztietan egoten da aukera hau, baina unibertsitate publikoetan plazak mugatuak dira eta notarik onenak dauzkatenak joaten dira; pribatuetan, aldiz, ez dago hainbesteko mugarik. Gure kasuan hogeita hamabi ikasle eman genuen izena eta denok joan gara. Pribatuetan, notari begiratzen zaio, leku konkretu baterako ikasle batek baino gehiago izena eman badu.

Elkartrukatze hori noiz egiten da?

Normalean, karrerako azken urtean, eta iraupena ez da izaten kurtso osokoa. Nire kasuan, bost hilabetekoa izan da, irailtik urtarrilera.

Baldintzarik ipintzen zaizue?

Bai, horietako bat atzerriko hizkuntza ondo menperatzea da, kasu honetan ingelese; eta egiaztatzeko azterketa bat ipintzen digute. Horrez gain, eskaera bete eta motibazioa edukitzea da garrantzitsua.

Herrialdea nola aukeratu da?

Gure kasuan Europara mugatua dago, eta hemengo herrialdeak aukeratu behar dituzu, bestela tokatzen zaizuna. Nik Danimarka eta Herbehereak aukeratu nituen eta Herbehereetara joatea tokatu zitzaidan.

Herrialde ezberdinen arteko ikasleek artean, etxebizitza trukatu da?

Ez, ez da etxebizitza trukatu. Unibertsitateak antolatzen dizu dena, eta adibidez, nire kasuan apartamentu batzuetan egon naiz, Erasmuseko beste ikasle batzuekin.

Kontatu iezaguzu nolakoak izan ziren lehenengo egunak...

Abuztuan abiatu ginen Herbehereetara,

Donostiako lagun bat eta biok. Bilbotik Amsterdamera hegazkinez joan ginen eta ondoren Amsterdametik Nijmegenara trenez. Hau zen gure hiria, 730.000 biztanle ingurukoa, eta Herbehereetako hiririk zaharrenetarikoa. Ekialdean dago, Alemaniako mugatik gertu.

Gaueko hamarretan iritsi ginen eta hizkuntzarekin lehenengo arazoak sumatu genituen; alde batetik, guk ez genuen ondo menperatzen ingelese, baina bertako zaharrek ere ez dakite, eta komunikazio arazo batzuk izan genituen. Gainera, ordu horietan jende gutxi ibiltzen da kalean. Guk ikasle egoitzara joan nahi genuen eta unibertsitateko arduradunaren telefonoa geneukan, baina ez ginen ohartu herrialde horretako telefono aurrezenbakia ipini beharra zegoela. Azkenean, taxi batean sartu eta iritsi ginen egoitzara.

Iritsi eta hurrengo egunean klasera?

Ez, alde horretatik ondo antolatua zegoen. Erasmuseko ikasleok elkar ezagutzeko, kanpamendu antzeko batzuk zeuzkaten antolatuta. Bertan, jarduera asko egin genituen bi egunetan zehar, parrandaxoren bat ere bai, baina oso ondo etorri zitzaigun elkar ezagutzeko.

Erasmuseko zenbat ikasle zineten?

Denera hamabost bat, eta gehienak espainiar estatukoak. Horrela, hasieran gaztelaniaz komunikatzen ginen. Erasmuseko ikasle guztiak egoitza berean geunden. Klaseak iraileko lehenengo astean hasi genituen, eta egia esan, buruko min itzelarekin.

Buruko minarekin?

Bai. Klase guztiak ingelesez ziren eta astebete behar izan nuen bertako dinamikara egokitzeko. Astean lau egunetan izaten genuen klasea, goizeko 10:00etan sartu eta 17:00etan atera, nahiko intentsua. Geroago, lau egun horietatik bi klase izaten ziren eta beste bi praktikak.

Praktikak?

Bai. Niri eskola nazional batean tokatu zitzaidan eta eskerrak, bertako haurrekin ingelesez hitz egin nezakeen, baina beste ikasle batzuek eskola holandestan tokatu zitzairen eta komeri ugari izan zituzten.

Maisu-maistra ikasketan, teoria aldetik, alderik sumatu duzu hemengo eta hango moduekin?

Bai. Hemen ikasketak askozaz zorrotzagoak eta gogorragoak dira, eta normalean ebaluaketak azterketen bidez gaintzen dira. Han, aldiz, alor pertsonala askozaz gehiago lantzen da, eta ebaluazioa gaintzeko parejatan lan egin ditugu



"International School" batean egin nituen praktikak.



Unibertsitatean; musika ikasgaiaren herrialde ezberdinetako dantzak ikasten.



Holandako familietako kide bakoitzak bizikleta bat du, ezinbestekoa da.



"Open air museum"era egin genuen irteera.



Krakovia (Polonia). Europatik zehar bidaiatzeko ere aprobetxatu genuen.



Parrandarako uneak ere izan genituen.

gu eta horrekin hogeita hamar kreditu lortu ditut, hemengo beste ikasle batek bezala.

Erasmuseko beste ikasleekin aldea sumatu dut, baina gehienbat hizkuntzaren erabileran. Guk, beraiekin alderatuz, ingeles maila oso baxua daukagu. Bestela, maisu-maistra ikasketak mailan ez zegoen hainbesteko alderik.

Pertsonalki oso esperientzia aberatsa izan da, eta hizkuntzaren aldetik ere bai; gainera, jende ezberdinarekin bizitzen ikasi dut.

Nolakoak izan ziren hango egun normal bat?

Goizeko 08:00etan esnatzen nintzen eta gosaldia ondoen bizikletaz joaten ginen denak tren geltokira. Han, bizikleta utzi eta ordu erdiko ibilaldia izaten genuen trenez, unibertsitate beste herri batean baitzegoen. Trena oso garestia da, deskontu txartelarekin, 8€ kostatzen zitzaigun joan-etorria. Unibertsitate 10:00etan sartzen ginen. Ordubeteko klaseak hartu eta 12:00ak aldera bazkaltzera. Janaria bakoitzak berea eramaten genuen, eta ondoren, 17:00ak arte. Unibertsitate hori ez zen oso handia, beste karrera batzuk bazeuden, baina gutxi. Unibertsitatek ateratakoan ibilbidea alderantziz egin eta bizikletan iristen ginen ikasle egoitzara. Orduan, zerbait merendatzen genuen, eta beste herrialde batzuetakoek afaldu ere bai. Guk afaldu 21:00ak aldera.

Unibertsitateetatik kanpo, beste aktibitate eskaintzarik bazegoen?

Bai, baina gutxi. Kirol praktikatzeko gune batzuk zeuden. Gainera, 17:00etatik edo 18:00etatik aurrera denda guztiak itxita zeuden eta jenderik ez zen geratzen kalean. Gainera, nahiko ilun zegoenez, triste samar geratzen zen guztia.

Bai, baina gutxi. Kirol praktikatzeko gune batzuk zeuden. Gainera, 17:00etatik edo 18:00etatik aurrera denda guztiak itxita zeuden eta jenderik ez zen geratzen kalean. Gainera, nahiko ilun zegoenez, triste samar geratzen zen guztia.

Orduan, afaldu ondoren, ohera?

(Jajajaja) Beste herrialdeetako jende ugari bai, baina gu normalean txutxumutxuka geratzen ginen.

Erasmuseko parrandak ere entzuteak dira. Egia al da?

Bai, egiten genituen, asteburuan nahiz astegunetan. Ateratzeko pub-ak zeuden, eta bertara sartzeko ordaindu beharra zegoen. Horrela, bertan geratzen ginen, ez dago hemengo poteatzeko ohiturarik. Beste batzuetan, ikasle egoitzan geratzen ginen kanpora atera gabe eta bertan egiten genituen gure parrandaxoak. Gainera, kanpora parrandara bizikletan joan beharra zegoen eta egiten zuen hotzarekin, gogo guztiak kentzen zitzaizkizun.

Probestu duzu turismo pixka bat egiteko Europan zehar?

Bai, Alemaniako mugatik oso gertu geunden, baina ez gara bertara joan. Hiru herrialde bisitatu ditugu. Lehenengo Belgika. Trenez joan ginen Bruselas, Brujas... Bruselasen gauza kuriosoa ger-

tatu zitzaigun, Brujasera trenez joateko dena lotua genuen, baina egun berdinean esan ziguten greba zegoela eta hura ezustekoa, Bruselas guztia pasa genuen oinez garraioaren baten bila eta azkenean taxia izan zen irtenbidea; hori bai, pixka bat garestia, 200€, baina tira ez zegoen beste aukerarik. Orokorrean, Belgika nahiko garestia iruditu zitzaigun. Hurrengo irteera Londresera egin genuen, izugarri polita, oso gustura ibili ginen eta asko merezi duen hiria da. Azkeneko bidaiak Poloniara egin genuen: Varsovia, Krakovia... Hemen elur pila egin zuen eta sekulako hotza (-20°C). Bost kamiseta, jertsea, kazadora, bufanda, gorroa... arropa horrekin guztiarekin ere ez zen nahikoa. Kaleetan elur asko ikusten zen, kale usoak hotzarekin izoztuak ikusten genituen. Polonia beste herrialdeekin alderatuta askozaz merkeagoa da, bai janari aldetik eta bai garraioetan; eta ingeles maila altua daukate.

Etxekoekin nola komunikatzen zinen?

Gehienetan ordenagailuz, Skype izeneko programa baten bidez, webcam-aren bidez, elkar ikusiz komunikatzen ginen. Gaur egun ordenagailua aurrerabide handia da.

Kuriositateak kontatzeko?

Esaterako, kanpamenduetara joaten ginenean, jende guztiak sandwicha eramaten zuen jateko, jamon york eta gaz-

tarekin, izugarri gustatzen zaie. Han ez da ogi normala jaten, beti moldeko ogia. Orokorrean, Euskal Herrian askozaz hobeto jaten dugu. Horrela, ikasle egoitzan, afari nazionalak egin genituen, bakoitzak bere herrialdeko janariak prestatuz. Guk patata tortilla eta urdaiazpikoa ipini genien eta asko gustatu zitzairen. Moldeko ogiaz gain, barazkiak (pepinoa, piperra...) gordinik jateko ohitura daukate.

Orokorrean esperientzia ona izan da?

Oso aberasgarria, edozein ikasleri gomendatuko nioke; nik aukera izango banu berriro joango nintzateke. Gainera, lagun asko egin ditut, eta batzuk oso onak.

Eta orain bukatzeko hiru galdera labur.

Zer duzu gustuko Itsasondon?

Orain hiri handi batean bizitzeko aukera izan dut eta aukeran, nahiago dut Itsasondo bezalako herri txiki bat bizitzeko.

Zer botatzen duzu faltan Itsasondon?

Gazte jende gehiago egotea eta giroa gazteen artean.

Inoiz izan duzun amets bat?

Agian irakasle ona izatea. ■



Hondakinak Itsasondon

Hemendik gutxira, Itsasondon aldatuta batzuk egingo dira hondakin bilketan, birziklatze tasa eta auto-konpostaia handitzeko helburuarekin.

Aldaketa horiek azaltzeko, herrian hainbat bilera egin dira eta herritar guztiak egon dira bilera horietara gonbidatuta. Otsailaren 7tik 16ra, Itsasondoko bizilagunekin bildu gara, baina horiekin biltzeaz gain, beste egun batzuetan jubilatuekin, elkartearekin, tabernekin, gazteekin, eskolarekin eta haur-eskolarekin ere elkartu gara, herritar gehiagorengana iristeko asmotan. Denera 90-100 pertsonekin bildu gara.

Aldaketa horren abiapuntua, Sasieta Mankomunitatean hondakin bilketaren egungo kontzesioa amaitu bitartean (2013. urtea) hartu diren erabakietan jarri dugu. Honako hauek dira erabaki horiek:

- Hondakin organikoak jasotzeko edukiontzi marroia jartzea.
- Bilketa sistema ezberdinen inguruko bideragarritasun azterketa egitea.
- Etorkizunean, Udalen ekarpenetan edo ordainketetan, hondakinen gutxitze, birziklatze eta konpostatze maila eta deuseztatzerako bidalitako hondakin kantitatea kontutan hartzea, beraz, udal bakoitzak bertara botatuko zaborraren pisuaren arabera ordaintzea.

Urte batzuetara, sortzen dugun zabor eta hondakin organiko kantitatearen arabera egingo da ordainketa, eta ondorioz, Itsasondon zabor bilketan aldatetak proposatu dira. Aldaketa horiekin, lehen esan bezala, bi helburu lortu nahi dira:

- Birziklatze tasa handitzea, zabor kantitatea gutxituz.
- Autokonpostaia bultzatzea, hondakin organikoen kantitatea gutxituz.

Birziklatze tasa handitzeko

1. Zaborrak biltzeko edukiontzia kendu egingo da eta horren ordez, hondakin puntuetan pertxeroak jarriko dira. Pertxero horietan familia bakoitza kodigo batez egongo da identifikatuta. Pertxero horietan birziklatu ezin daitekeen frakzioa bakarrik jasoko da.
2. Gaur egun, herrian zaborrak birziklatzeko edukiontzi guztiak ditugu eta edukiontzi horiek orain dauden lekuan egongo dira eta horietan ez da inongo aldatetarik egingo, 24 orduz kalean izango ditugu.

Autokonpostaia bultzatzeko

1. Udala lur eremu bat (baratza, lorategia,...) duten familiekin harremanetan jarriko da, eta interesa duena auto-konpostaia egitera animatuko du.
2. Beraiek beraien hondakin organikoen kudeaketa egiten dutenez, edukiontzira joaten den hondakinen kantitatea txikiagoa izango da.
3. Pertsona horientzat konposta egiten erakutsiko duen tailer bat antolatuko da. ■

Martxoak 8, emakumeen eguna

1.

Ospatzen al duzu Emakumearen eguna? Egiten al duzu ekintza espezialik?

2.

Guztia lortua dagoela uste al duzu, ala oraindik lortzeko asko dagoela pentsatzen duzu?



Arantzazu Iturrioz

1. Normalean ez dut ezer espezialik egiten, egun honetan.
2. Gauza asko lortu dira, baina orain lehen baino ardura gehiago ditugu, etxe barruan eta kanpoan egiten dugu lan. Laguntza gehiago egon beharko lirateke eta ez ekonomikoak bakarrik.



Mª Jesus Agirre

1. Ez dut ospatzen, baina oso ondo iruditzen zait aldarrikatzea, izan ere asko dago oraindik egiteko.
2. Lan munduan eta ekonomikoki oraindik diferentzia asko daude gizon eta emakumeen artean.



Jorge Gorrindo

1. Positiboa iruditzen zait, beti ere emakumearen lana hobetzeko bada.
2. Ez zait egokia iruditzen oraindik lan bera egiteagatik emakumeek gutxiago kobratzea.

Itsasondoko gazteriaren hainbat kontu

GABONETAKO EKINTZAK

Aurreko alean adierazi bezala, herriko haur eta nerabeentzat hainbat ekintza zeuden antolatuta. Haur txikientzat gaztelekuan eta goizez ekintza desberdinak egin ziren: tailerrak, jolasak, pelikula emanaldia eta Ormaiztegiko Zumalakarregi museoa ere ezagutzeko aukera izan zuten. Bertan, hamar haurrek parte hartu zuten. Egun horietan egindako tailerrek eta ateratako argazkiekin, gaztelekuan bertan museo bat eraiki zuten.

Nerabeek, berriz, skate ikastaroa jaso zuten, Mikel Zurutuza herritarraren eskutik. Bertan, zortzi partaideek skate egiteko aholkuak eta teknika desberdinak ezagutu zituzten. Ikasitakoa praktikan jartzeko asmoz, Donostiara irteera egin zen, bertako skate parkera.

Gaztelekuko zaharrenek, berriz, Txuri urdinera irristatzera joateko aukera izan zuten.

Bai partaide bai gurasoak oso gustura agertu dira ekimen hauekin.



Itsasondoko parkean jolasean.



Gazteak Txuri-Urdinen patinatzen.



Donostian skate egiten.

NERABE GEHIAGO ITSASONDOKO GAZTELEKUAN

Urtariletik aurrera, nerabe gehiago sartu dira gaztelekuan. Hain zuzen ere, sei nerabe gehiago daude. Guztiak ere mutilak dira, eta hauek gaztelekuan hainbat ekintza egin nahi dituzte, ordenagailuetan jolastu, irteerak egin... Poliki-poliki, gaztelekuko "biztanleria" handitzen ari da. Laster, hauentzat partaidetzan oinarritutako proiektu bat lantzen hasiko gara. Oraindik erabakitzeke badago ere, nerabe hauek antolatu eta aurrera eramango luketen proiekturen bat landu nahi da.

EMANTZIPAZIO PROGRAMA

Itsasondoko gaztelekuan sei nerabe Foru Aldundiak martxan jarritako emantzipazio proiektuan parte hartzen ari dira. Gazteen emantzipazioa helburu, hainbat ekimen aurrera eramaten ari dira beste hainbat herri-tako nerabeekin batera. Esaterako, Otsailaren 4an, 5ean eta 6an, Zarautzen topaketa egin zuten.

ZARAUZKO TOPAKETA

Otsailaren 4an, ostirala, arratsaldeko 5etan, Zegamako taldearekin elkartu eta autobusean joan ziren Zarautzera. Hasieran, denak urduri ziren, ez zekitelako zer egin behar zuten. Bertan, Donostia, Urnieta, Azkoiti eta Irurako taldeekin elkartu ziren, eta hasieran aurkezpenak egin zituzten. Gelak banatu, afaldu eta gaubela egin ostean, denak lotara.

Hurrengo egunean, formakuntza saioa izan zuten, eta goizean atal teorikoa landu zen. Astunena bazen ere oso garrantzitsua eta interesgarria izan zen, gure proiektua landu ahal izateko. Arratsaldean, gazteek irrati saioa, arte tailerrak eta jolas tailerrak egin zituzten. Gauean, gazte denak erotuta utzi zituen gaubela baten ondoren, lotara joan ziren denak; beno, lotara, hori egia egia ez da baina...dena ezin kontatu.

Igandean, denak begizuloekin jaiki ziren, baina lanerako gogoia ere bazuten. Horrela, aurreko egunean ikasitakoarekin goizean dinamizazio lanak egin behar izan zituzten.

Primeran atera zen astebukaera. Nerabeek jende gehiago ezagutzeko aukera izan zuten, gauza berriak ikasi zituzten eta Itsasondon garatu behar duten proiektuaren ideia sortuta etorri ziren herrira.

Irrati saioa prestatzen.



Gazteak formakuntzan.



Jone eta Saioa irrati saioan.



ITSASONDOKO NERABEEN PROIEKTUA

Une honetan, nerabeak Itsasondoko hezitzailearen laguntzarekin herrian eragina izango duen proiektu bat aurrera eramateko prestatzen ari dira. Hausnarketa baten ostean, ITSASONDOKO GAZTE TALDEA sortuko da. Horren berri herriari emateko eta herria eragile desberdinen topaketa bihurtzeko, festa giroan murgildu nahi dute. Horretarako, ITSASONDOKO I. HERRI EGUNA ospatu nahi dute.

Hori guztia APIRILAREN 9AN egingo da, eta egitarau zabala izango du: haur jolasak, tortilla patata lehiaketa, bokadillo jana, kontzertua eta ero jolasak.

Lerro hauen bidez, herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu, Itsasondoko I. Herri Egunean parte hartzeko.

Gazteak herri eguna antolatzen.

ITSASONDOKO GAZTEAK HERRIKO ERAGILE eta ALDIZKARIKO ATAL BERRIAREN ARDURADUN

Hurrengo aletik aurrera, Itsasondoko Gazte Taldeak beraien artikulua idazten hasiko da. Bertan, talde diren aldetik beraien ekintzen berri eman, artikulua idatzi eta ekintzak proposatuko dituzte. ■



Arbelaren memoria (eta IV)

Hilabeteotan, Itsasondoko arbel-industriaren memoriaz aritu gara zenbait artikulutan, beste titulu batzuen azpian egin badugu ere. Aktibitate industrialaren hasiera kontatu badugu, produkzio-prozesua deskribatu badugu, paisaia eta ondare materiala aipatu badugu, herriaren memoria izan dugu hizpide. Izan ere, aurrekoan ikusi dugun bezala, arbelaren erauzketak eta ustiapenak arrastoak utzi dituzte Itsasondon. Arrasto horiek, noski, XXI. mendearen hasieran, pizartegien itxieratik hamarkada batzuk igarota, agerian daude. Itsasondoren historia guztiz lotuta dago bere arbel-enpresen historiarekin: meategietan eta fabriketan egindako lanak eman die forma gaur egungo herriari eta paisaiari. Horren aztarnek kaleetan eta mendietan dira.

Egia da, beraz, meatze- eta industria-aktibitateak azpimarratzeko zantzuak utzi dituela herrian. Ondare-elementu horiek, baina, arrasto hutsak dira; benetako zentzua edukitze-ko ezagutu dituzten jendearen testigantza behar dute. Tailerretako langileek, enpresarioek, meatzariak, teknikariak, barreneroek... euren daukate herriko ondareari mamia emateko gakoak. Arkeologiak adieraz dezake ondare-aztarnen izatea, baina pertsonen oroitzapenek eta kontakizunek emango diete benetan duten garrantzia.

Oraindik ere, Itsasondoko historia industrialaren protagonista askok pizartegietan bizi izandakoa kontatu dezagute: Gerra Zibilean industrien pairatutako arazoak, gerra osteko zailtasun larriak, aktibitate ekonomikaren indarberritzea, azken krisialdia eta fabriken itxiera... Azken finean, arbeltegien historia, produkzio-prozesua eta ondarea –artikuluotan kontatzen saiatu garen horiek– ezin dira ulertu benetan ezagutu dituzten pertsonen kontakizunetara erreferatu gabe.



Lanean ez ezik, herriko jaietan ere erakusten zuten barreneroek beren trebezia.



Sarasolatarren antzinako fabrika, egun desagertu dena eta memorian baino irauten ez duena.

Nola edukiko genuen, bestela, meategietan egindako lanaren berri? Dokumentazioan makinariaren zerrendak agertzen dira, bai eta aktibitatearen deskribapen xumeak ere. Baina, langile batek ezin digu kontatu benetan zer gogorra zen meategien egotea, sufritutako beroa, hautsa... Edota nola egin behar zen arbel-xafak behar den moduan ateratzeko, liburuetan sekula agertzen ez diren trikimailuak eta teknikak.

Era berean, nork emango zigun Izarreko Fabrika Zaharrean pairatzen zuten hotzaren berri? Han bertan lan egin duen emakume batek baino ezin du deskribatu. Are gehiago, horiei esker dakigu nolakoa zen emakumeen lana, askotan isilean gelditzen dena. Izarren, emakumeak aritzen ziren arbel-arkatzak egiten; sarritan, emakume gazteak ziren, ezkondu ostean lan egiteari utzi ohi baitzioten. Kontatzen dutenez, hamalau urteko neskatok zirenean hasten ziren tailerretan. Lan gogorra zen, eta –emakumeak izanik– ez oso ondo ordaindua; euren ustez, beraz, askatze modukoa zen lan hori lagatzea.

Are gehiago, herrian industri-ondare ugaria eta azpimarratzekoa badago ere, urteak aurrera joan ahala ondare horren aztarna batzuk desagertu egin dira. Pizartegien puzzlea osatzeko pieza batzuk falta zaizkigu... Nork esango zigun nolakoak ziren bagonetetarako bideak, airetiko kableak, meatze-galerien barrukoak, desagertutako fabrikak?

Lanari buruzko informazioa ez ezik, gizarteari buruzkoa ere funtsezkoa da herri baten historia ezagutzeko. Itsasondo biztanleria oso lotuta egon da pizartegien gorabeherekin. Hasieran, herriko industria erreklamo handia zen kanpoko langileentzako; itsasondoar batzuen oroitzapenen arabera, Beasaingo CAFetik ere etorriak ziren langile batzuk, meategietan gehiago irabazten baitzuten. Alboko herrietatik (Ordiziatik, Tolosatik edo Ataundik, kasu) etortzen ziren langileak, beraz; horiek joan-etorria egiten zuten egunean: goizeko 7etarako lanera eta iluntzeko 7etan buelta. Beste batzuk, ordea, urrunagotik etorriak ziren, eta Itsasondon geratu ziren. Haien artean gipuzkoarrak, nafarrak, bizkaitarrak, gai-

legoak, asturiarrak, Gaztelakoak... Herriaren memoriari esker, horien istorio txikiak ere gorde dira. Esaterako, Itsasondoko paisaia menditsua deigarria zen, oso, Gaztelako mesetatik etorritakoen ustez, eta magaletan sakabanatutako baserrien argiak ikusita “¡Qué cerca están aquí las estrellas!” esan omen zuen, harriztuta, haletako batek.

Kanpotarrak etorri bai, baina baita herrikoak joan ere, arbel-industriak krisialdia sufritu zuenean. Horretarako ere protagonisten memoria behar dugu; inolako liburuk ezin digu adierazi herrian bizitakoa. Hala, langileek euren kontakizuna baino ez genuen jakingo 1956. urterako nabarmena zela pizartegien krisia. Orduan, kontrako bidea egin zuten askok: Itsasondotik Beasaingo CAFera edo Olaberriko Aristrainera, lan hobe baten bila. Poliki-poliki, meategiak eta tailerrek hustu ziren, harik eta –lehenago Altuna, Sarasola geroxeago– arbeltegiak itxi ziren arte.

la berrogei urte igarota, nekez ulertuko genuke itxiera horren ondorioak. Jakina, dokumentazioak ekonomiaren berri ematen digu; hala eta guztiz ere, langile baten ahotik entzun arte ez dugu ulertuko: “Negar ere egin genuen itxiko zutela jakin genuenean”. Era berean, negarra eta mina antzeman ditugun legez, memoriari zor diogu momentu onak eta pozgarriak ezagutzea. Tailerretan zegoen giro ona, nesken kantak, herriko jaiak... erretratuak ikusi arren, arbelaren memoria behar dugu Itsasondoren historia bere osotasunean mamitzeko.

Arbelaren gainean dago idatzita Itsasondoren memoria industrial. Eskola-arbel batean bezala, idatzitakoa erraz ezaba daiteke, arrasto mehe bat utzirik. Arrasto horien gainean istorio eta historia berriak idatziko dira... Artikuluotan aspaldi idatzitako memoria horren berri ematen saiatu gara, itsasondoarren oroimenean iraun dezan. ■

ARBEL-AITZ
S. D.



Inagurazio eguna, 1961.eko apirilaren 22.

Arbel-aitz, 50 urte Itsasondo eraikitzen!

Itsasondoko Arbel-aitz elkarteak, 50 urte beteko ditu eta elkartearen ibilbideari errebaso egiteko aukera paregabea dela iritzi diogu. Ondorengo lerroetan zuentzat hainbat informazio eta bitxikeria bildu ditugu. Baina, datuak datu, guretzat zera da garrantzitsuena: Arbel-aitz elkarteak Itsasondon erreferente izaten jarraitzen duela eta lanean jarraitzeko gogoz eta aurpegi berriz, jarraitzen diola bere ibilbideari. Urte askotarako.

Uholdearen ondorioz paperak erabat bustita geratu zirenez, ez zaigu erraza egin bertatik datuak jasotzea.

Lehen akta 1962ko apirilaren 14koa da, eta argi adierazten du elkarteari baimena martxoaren 8an eman zitzaioela, eta "Sociedad Deportiva ARBEL AITZ" gisa erregistratu zuten. Gerora, 1989an, "Sociedad Recreativa"-ra aldaketa egin zuten. Hasieran, 50 pezetako kuota ordaintzen zen, eta gero 30 pezetara jaitsi zen. Sarrera 1000 pezeta zen, eta dena batera ezin bazen eman lau hila-betetan emateko aukera zegoen. 1972an erosi zen ordurarte Sarasolarena zen Elkarte. Honek bazkide bakoitzari 3000 pezetako kostua suposatzen zion.

Inaugurazioa 1961ko apirilaren 22an izan zen, baina bazkide batzuek ezin izan zuten parte hartu une horretan soldaduskan zeudelako. Ekitaldiarekin batera lehenengo juntaren aurkezpena egin zuten:

Presidente: Jacinto Mugika
Presidente ordea: Imanol Iturrioz
Idazkaria: Esteban Mugika
Diruzaina: Eulogio San Sebastian
Bokalak: Bittor Lete, Juan Aramendi, Ignacio Arbilla, Juan Ramon Aizpuru, Agustin Garmendia eta Francisco Unanue.

Harrigarria bada ere, frankismo garaian zabaldu bazan ere, paper ofizialetan ez du ipintzen emakumeok sarrera debekatuta dugunik, nahiz eta elkarte askotan tamalez horrela izan. ARBEL-AITZ elkartearen emakumezko lehen bazkidea 2001ean sartu zen, eta gaur egun, lau besterik ez gaude. Orduan ere elkartearen dinamika gizonetzkoena zen.

Barne arauak, aktak...1982tik aurrera euskeraz egiten dira, gure hizkuntzan.

Argi azaltzen dena da bai lehen bai orain elkartearen ardatz nagusia herri-errekiko lotura, gertutasuna eta harreman zuzena dela.

Garai batean, urte zahar gauean topaleku gisa irekitzen zen, eta 1963. urtetik 1973. urtera arte Itsasondoko jaietan herriko taberna gisa. Herriari begira ekimen ugari egin zituen, batzorde ezberdinetan parte hartuz, elkartearen erabiltzeko gunea gisa utziz, hainbat lan eginez, eta abar oso luze bat.

Aspaldi izen edo garrantzi handiko krossak antolatzen ziren, Gipuzkoa mailan zein Estatu mailan. Itsasondo kirolarekin lotura zuzena daukan herria izanik, urtean zehar ekitaldi asko hartzen dituen beregain elkarteak: mus txapelketa, martxoaren 8ko bazkari edo afaria, bertso eta kantu afariak, abenduaren 24ko hamaiketakoa, ziklo kros-seko bazkaria, sukaldaritza, enbotatze, senda belar... ikastaroak, gazta eta sagardo dastaketa, eta abar luze eta aberasgarri bat.

50 urte hauetan makina bat gauza antolatu, prestatu, utzi... egin dira elkartearen. Denak ez ziren denon gustukoak eta beste batzuek ez dira zuzen jokatu. Hala ere, ez du inork ukatuko elkartetik zer edo zer behar izanez gero beti hor egon garela eta hurrengo 50 urteetan ere hor egongo garela. ■



Itsasondoko ingurune naturalaren eta landa eremuaren kontserbaziorako 2011. urterako ekimenak

Aurten ere, Itsasondoko Udalak herriko ingurune naturalaren eta Landa-eremuaren kontserbaziorako ekimenetan dihardu, Aranzadi Zientzia Elkartearekin elkarlanean. 2008. urtean, Aranzadi Zientzia Elkarteak Itsasondoko Natura edota Paisaiaren ikuspegitik Garrantzi berezia duten Guneen Inbentarioa egin zuen; geroztik, urtero, Biodibertsitatearen aldeko ekintzak antolatzen ari dira udalerrian, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak garapen jasagarria sustatzen dituen ekintzetarako dirulaguntzei esker.

Itsasondoko ingurune Naturalaren Eta Landa Eremuaren Kontserbaziorako Ekimenen I. fasea amaituta, aurten ekimenen II. fasean ari gara lanean.

Orain arte burututako lanen artean, bertako basoaren errestauraziorako landaketa eta garbiketa lanak egin dira Murumendi mendian eta Artetxe baserri-rik gertu dauden udal lurretan. Flora exotiko inbaditzailearen erradikazioa eta ibar-basoen errestaurazioa aurrera eramana da Oria ibaiaren ertzean, Berostegi auzoan, Lasarte auzoan, Urkia auzoan, herriko parkeetan eta trenbide ertzean. Elementu paisajistikoa tradizionalen (sega-belardi, segaturiko iratzedi, zuhaitz-hesi, fruta-arbola...) mantentzeko, berreskurapenerako eta zaintzarako lanak egin dira. Lasarte auzoan, berriz, baserriarekin elkarlanean, Loiako putzuaren garbiketa lanak burutu dira. Hori guztia herrian ezagutarazteko helburuarekin eta Itsasondoko ondare naturala herritar eta bisitariengana hurbiltzeko asmoz, irteera bat antolatu zen.

Ekintza horiez gain, Udalak Murumendiko magalaren inguruan, 3,8 hektarea hartzen dituzten hainbat lur-sail erosi ditu, horiek duten interes paisajistikoa eta naturala dela eta, bertan, biodibertsitatearen onurarako ekintzak aurrera eramanez nahian.

Honenbestez, II. fase honetan, aurreko urteko ekintzei jarraipena eman nahi

zaie, hala nola, sasi garbiketarako landaketen eremuetan, flora exotikoaren erradikaziorako aplikazio berriak... Baina aurreko urteko ekintzei jarraipena emateaz gain aurtengorako ekintza berriak ere proposatzen dira.

2011. urtean zehar, habitat naturalen kontserbazioari dagokionez, udalak erosi berri dituen lur horiek lehengoratu egingo dira, hau da, koniferoen landaketez estalita dauden lur-sailetan koniferoak atera eta habitataren beharrezko ekologikoen araberrako espezieak landatuko dira, hala nola, pagoak, haritzak, urkiak... Gauza bera egingo da Udalaren beste lur-sail batzuetan ere. Horrekin lotutako azken ekintza Udalak "Itsasondoko Zuhaitz eguna" antolatzea izango da. Ekimen hori martxoaren 24 eta 25ean egin zen, eta, herritarren parte-hartzea sustatzea du helburu.

Flora exotikoei dagokionez, eta herritarrei informazioa emateko asmoz, aurreko urteko erradikazio ekintzekin jarraitzeaz gain, Itsasondoko flora exotikoari buruzko hitzaldia antolatuko da, udaberri aldera. Gainera, euren lorategi pribatuetan gisa horretako espezieak dituzten jabeek hitzaldira gonbidapen berezia egingo zaie. Horrez gain, herriko txikiak ere ibar-basoen garrantziaz eta flora exotikoak habitat mota horretarako suposatzen duen mehatxuaz ohartarazteko, Itsasondoko herri-eskolakoei zuzendutako irteera ere antolatuko da.

Landa-eremuaren kontserbaziorako ekimenekin jarraituz, aurten Lasarte auzoan egingo diren lanez gain (hesibiziak sortu, fruta-arbolak landatu eta larreak hobetu), loiako auzoan ere hainbat fruta-arbola landatu dira jadanik baserriarekin elkarlanean.

Azkenik, Zubinalde inguruan, erreka bazterreko haltzadia berreskuratzeko lanak aurrera eramango dira. Izan ere, aldameneko partzela kudeatzeko era desegokiagatik, bertatik ateratako zaborra (enbor hila eta adarrak) erreka albian haltzadiari dagokion eremuan bota dira, horrek, haltzadiaren galera eta habitataren degradazioa suposatuz. Haltzadiak hain habitat zaurigarriak izanik eta biodibertsitatearen kontserbazio aldetik berebiziko garrantzia izanik, hurrengo asteetan zehar habitat hori berreskuratzeko lanak egingo dira eremu horretan: zaborra atera eta haltzadiko espezie tipikoak landatu.

Lan hauekin guztiekin Itsasondoko biodibertsitatearen egoera hobetu nahi bada ere, ez da ahaztu behar, azken kasu horrek agerian uzten duen bezala, udalerriko eta inguruko biodibertsitatearen mantenua eta hobekuntza herritar guztion ardura dela, bai bere kontserbazioan lagunduz edota haren kaltea eragiten duten ekintzak salatuz. ■

Ibilgailua aparkalekuan uzteko ezinduentzako txartela

Honako pertsona hauek izan daitezke ibilgailua aparkalekuan uzteko ezinduentzako txartelaren titularrak, hau da, hori lortu eta erabiltzea izango dutenak: Euskal Autonomia Erkidegoko udalerririk bateko biztanleak izanik eta urritasun fisiko zein psikiko larria izanik, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein foru aldunditako Balorazio eta Orientazio Unitateak emandako aldeko irizpena lortu badute. Horretarako, ezgaitasunaren eskaera egin behar da eta garraio publiko kolektiboak erabiltzea galarazten duten mugikortasunean honen eskubidea zehaztua egon behar du.

Ibilgailua aparkalekuan uzteko txartelaren ezaugarriak eta txartela erabiltzeko baldintzak:

- Ibilgailua aparkalekuan uzteko txartela titularrak ibilgailua gidatzen duenean edo bertan berori garraiatzen denean bakarrik erabili ahal izango da.
- Txartela ibilgailuaren aurreko aldean jarri behar da, txartelaren aurkia argi eta garbi ikus dadin ibilgailuaren kanpoaldetik eta agintaritzak eskudunak azter dezan, halaxe eskatu badu.
- Txartela baliozkoa izango da horretarako seinalatutako lekuetan aparkatzeko, baina aparkatzea debekatuta dagoen lekuetan ere, ezinbesteko denboraz, eta ondoko salbuespenak kontuan izanik.
- Txartela bost urtean behin berritu behar da titularraren bizitokiko udalera; nolahi ere, baliteke aldaketak egotea titularraren ezintasunaren balioespenean eta harrez geroztik txartela indarrean ez egotea. ■



Chernobilen Lagunak elkarrekin 40 haur ekarriko dituzte aurten udara igarotzera



2011n zentral nuklearraren hondamendiaren 25. urteurrenari betetzeko da, eta, oraindik ere, milioika biztanle jasaten dituzte ondorioak.

Chernobilen Lagunak elkarrekin abegi-programa osatzen

du familia gipuzkoarren artean, duela 25 urte gertatu zen hondamendi nuklearrak kalteturiko adin txikiko ukrainarrek uda hemen igarotzeko.

Aurten, apirilaren 26an, industria nuklearraren historian izan den istripurik larrienaren 25. urteurrenari beteko da, hots, Sobiet Batasunean zen Chernobileko zentralaren 4. erreaktorea lehertu zeneko segurtasun frogak egiten ari zirelarik. Baina, erradioaktibitatearen ondorioek, gaur egun eta luzaro, osasunean eragin kaltegarriak ekarriko dizkiote kutsatutako zonaldean (nagusiki Ukraina, Bielorrusia eta Errusiako lurrak) bizi diren milioika pertsonen (5 eta 8 milioi bitartean datuen arabera).

Udaldira, 1996az geroztik, Chernobilen Lagunak elkarrekin abegi-egitaraua antolatzen du, zentraletik 50 km-ra den Ivankiv-eko zonaldean familiekin bizi diren 6-18 urte bitarteko adin txikiko ukrainarrentzat. Nahiz eta adingabe hauetatik gehienek ez duten ageriko gaixotasunik, sistema immunologikoa ahulduta daukate erradioaktibitatearen eraginagatik eta hartzen dituzten kutsaturiko elikagaiengatik.

Bi hilabete erradioaktibitate urrun igarotzeak, elikadura osasungarri eta anitza hartuz, defentsak ugaltzen eta beren jaioterriko negu gorria hobeto igarotzen laguntzen die. Egonaldian zehar miaketa medikoak egiten zaizkie, edozein arazo zehatz antzemateko.

Munduko Osasun Erakundeak zera berretsi du: ume hauek kutsatutako zonaldekan kanpora igarotzen duten hilabete bakoitzeko, bizitza itxaropena 12 eta 18 hilabete bitartean handitzen zaiela. Erradioaktibitatearen segurtasunerako Belrad Institutuak baieztatu du egonaldi hauei esker umeen erradioaktibitate maila %30 eta %40 bitartean jaisten dela.

Egitarauaren parte hartzen duten ume guztiak Chernobilen kaltetutako zentralaren zuzendaria dute, hau da, hondamendiaren erakartitako ondorioak jasaten dituztela adierazten duen egiaztagiria ofiziala. Gainera, adin txikiko hauek zonaldekan urruntzeko errekurtsorik ez duten familiakoak dira. ■

Gaiari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, jarri harremanetan (edota gure web orrian: www.chernobilenlagunak.com):

CHERNOBILEN LAGUNAK. Matxitxako Kalea, 4A 3º Dcha
20800 Zarautz. Tel. 689586277


Nº Reg. Asociaciones: AS/G/07033/1997 - NIF G20609087
E-mail: chernobilenlagunak@yahoo.es



9. Ibilbidea

Itsasondo-Izarre-Zabale-Itsasondo

Iraupena: 85'
Ibilbidea:
 Itsasondo-Ioiako bidea: 20'
 Ioiako bidea-Izarre: 10'
 Izarre-Lukusain: 25'
 Lukusain-Zabale: 10'
 Zabale-Itsasondo: 20'



Deskribapena: Ibilbidea Errekalde etxearen ondotik hasiko dugu. Bertako txabola tartetik igaro eta gorantz doan bidea hartuko dugu, zig-zag eginez. Platanondoei jarraituko diogu, Agarre baserrira doan errepidearekin topo egin arte. Han gurutzatu eta parez pare dugun bidexkatik igoko gara. Ioiara doan bidea gurutzatu eta Izarreko minara doan pista jarraituko dugu. Han, garai bateko minen aztarnak ikusiko ditugu (konpresorea gordetzeko eraikina, airetiko kablearen habak...). Txabola eskuinera utzi, eta bide nagusia jarraitu, bidegurutzera iritsi arte. Han beherantz doan bideari jarraitu, belardi zabal batera heldu arte. Goi-tentsioko kableen azpitik igaro eta beherantz ekingo diogu, Lukusain baserriaren gainaldetik igaro, eta aurrean azalduko zaigun Zabale baserri-rantz joko dugu. Handik Itsasondo herrira heltzeko bidea erreza dugu. ■



Errekalde



02 Jarraitu beharreko bidea



03 Iraolako bideruntz



04 San Juan auzoa



05 Izarre aldera



06 Izarre baserria




07 Izarreko minaren aztarnak



08 Lukusain baserria



09 Zabale



10 Lukusain baserria



11 Zabale



Ikusi makusi



Zer ikusi telebistan gustuko programaziorik ez dagoenean? Informatikak soluzio alternatiboa dakarkigu.

TDta herrian dugu jadanik. Bai, kanal gehiago, kalitate hobea eta kanal asko tematika desberdinez osaturik. Baina, ziurrenik egunero, ez al zaizue gertatu aspertu egiten zaretela programazio berdina behin eta berriro ikusteaz?

Monotonia momentu horiek saihesteko, informatikak soluzio bat dakar: ordenagailua telebistan konektatu eta kitto. Eta zertarako, pentsatuko duzue. Oso erraza. Ez baduzue DVD erreproduzitzeko tresnarik, ordenagailuak lan hori egin dezake. Horrela, pelikulak, bideoklipak, serieak, zuek grabatutako bideoak... ikus ditzakezue. Gainera, kalitate handiko bideoak ikusteko aukera ematen dizue (HD bideoak).

Zer egin behar da? Bada, oso erraza da. Pausoz pauso azalduko dizuet:

1. Aurreneko urratsa ordenagailua telebistatik gertu edukitzea da. Gomendagarria da portatila edo HTPC bat izatea (geroago ikusiko dugu zer diren HTPCak).
2. Ikusi zuen ordenagailuaren txartel grafikoan ze irteera mota duen, hau da, ze kable motarekin konektatzen den zuen monitorera. Portatila baldin bada, bideo irteerak aurkitu beharko dituzue. Arretaz begiratu zuen esku-liburuan, baina normalean DVI edo HDMI irteerak izango dira eta idatzita azalduko dira (irteera horien zuloetan azalduko da idatzita).
3. Behin zuen txartela duen bideo seinale irteera mota jakin eta gero, zuen telebistak duen sarrera mota aztertu beharko dugu. Suposatuko dugu daukazuen telebista mota gaur egungo telebista plano horietako bat dela. Atzealdean sarrera pila bat izango ditu. Guri interesatzen zaizkigunak izango dira HDMI, DVI eta badaezpada RGB.
4. Behin sarrerak aurkitu eta gero, behar dugun kablea erosiiko dugu. Kable mota asko daude, baina nire ustez, zuen txartela eta telebista HDMI irteera eta sarrera baldin badu nahikoa da kable horrekin. DVI/HDMI kableak ere badaude. Normalean, kable hauek erabiltzen dira txartel grafikoak HDMI irteera ez badu.
5. Kableekin ordenagailua eta telebista konektatu eta kitto. Gaur egungo txartel grafikoak eta telebistak preparatuta daude automatikoki behar den erresoluzioa eta tamaina jartzeko; beraz, ez dago ezer ukitu beharrik. Baina, baliteke arazo puntual bat azaltzeko arriskua izatea. Ordenagailuaren pantaila erreproduzitzeko eskala aldatu eta listo. Nahi baduzue, hitz egingo dugu arazo horietaz aldizkariaren beste zenbaki batean.

Jadanik ordenagailua telebistan konektatuta dagoela ikusi eta gero, ordenagailuan dauzkagun pelikulak, bideoak, argazkiak e.a. ikus ditzakegu. Modu praktikoa eta alternatiboa da telebista ikusteko. Ez dagoela ezer telebistan? Botoi bat sakatu, ordenagailua konektatuta dagoen katea aukeratu eta nahi duzuna ikus dezakezu.

Badakizue, edozein arazo, galdera, edozer gauza esan nahi baduzue informatikari buruz, nire posta elektronikoa prest dago zuen zalantzak hartzeko. djashbazaga@hotmail.com

Hurrengo atalera arte. ■

HTPC ORDENAGAILU BAT



Orain larogei urteko eskolak

Gaur eskola zarraz ezagutzen degun etxea zan garai artako eskola. Kanpotik gaur bezelako itxura zun eta barrutik ere aldaketa gutxi. Karreapetik asita, lenengo solairuan maixue bizi zan eta goikoan maixtrea. Eskolak berriz, karreapetik sarrera zuela, neskana, orain bezelaxe, eta mutillena, eskillaratatik igo eta aurreneko solairuan etxe bizitzan parez-pare sarrera zuela.



Mutilla naizenez, emen, goiko eskolan gertatzen zana azalduko det don Marcos Perez de Mendiguren, maixu genduela. Eta neskanen, doña Eugenia Sagredo maixtra zutela, berdintsu gertatuko zan ere zigorketak salbo.

Ikas maiek, luzeak ziran, bakoitza zortzi ikasleentzako. Bakoitzak, esertzeko, bere tokia zuen, maixuk esanda bezela, eta batzuk eserita bazeuden, tartekok, eseri nai bazuten atzetik sartu bear izaten zuten. Orman bi arbel aundi, zurezko ertzeekin; mapa bat borobil bilduta eta oso gutxitan zabaltzen zana; bola batzuk alanbren kontatzen ikasteko eta zutikako erloju aundi bat.

Maixuentzat, oltza baten gañean, bere maia eta silloia, eskolaru denak bere begi-bistan ondo zaintzeko. Danan atzean, komuna, baimena emanda sarterakoan, zintzilik zegoen ol txiki bat bueltatu bear zan, barrun bakarren bat zegoela adierazteko.

Eskola aste guzian izaten zan, larunbatean ere bai. Mutillek asteazken arratsaldean izaten zuten jai eta neskek ostegun arratsaldean.

Garai artan, eskola urteak seitik ama-lauera ziren, bañan seguruenik, gure eskolan, iñor etzan amalau urtetara iri-

txiko. Lau urte betetakoak ere artzen zitun maixuak zerbait ordainduz. Berrogei ikaslelik gora izango ziran beti, eta ondo zaintzen zitun ala ere, errespetoa edo bildurre izugarrie baizan. Orretarako zaplaztakoak, belauniko besoak zabaldua, belarritik tiraizoak eta abar. Belarritiko tiraizoek bazuten beste era bat ere: maixue aurrean eserita zegoela, ikasitakoa aoz azaltzen ari giñela, bakarren batek ez bazekien erantzuna eta urrengoak bai, maixuak orrela agintzen zion "estirale de las orejas". Gainera, iruditzen bazitzaion itxura bakarrik izan zala, zartakoa zekienarentzako. Kontuk arbelean egiten ziren, mutillek txandaka pasatuz beak esandako eran, eta batez ere, zatiketatan, denbora asko pasa edo gaizki jartzen bazuen zenbakiren bat, belarritik tiraizoekin batea, zera esateko oitura zuen: ¿zer da numeroa arapatu?

Geienetan orrela izan aren bazekien batzutan bere jenioa baretzeko deadar egiten: ¡Si el santo Job hubiera sido maestro, no hubiera llegado a santo!

Len esan det amalau urte arte eskolan gutxi edo ia iñor ez zala izaten, bi ikasle mota baiziren: egunero eskolatziren eta tarteka joaten zirenak.

Lenengoen gurasoei bederatzai, amar edo amaika urte zituztela adieratzen

ziren erakutsi bearrekok ikasi zituztela eta beste norabait bidali nai bazituzten bidaltzeko, bestela leena errepikatzen aritu bearko zutela eta. Orrela batzuk Altzaga bidea artzen zuten, an ikasle gutxigokin maixu ona baizegoen, eta geienak, Ordiziara, praileta. Len azaldu ditut ondo ikusten ez nituen gauzak, baña bestelakoak ere baziran. Naiz Altzagara jun edo Ordiziara, ango ikasleen mallan oso ondo azaltzen ziren itsasondotarrak.

Beste ikasle mota berriz, geienak baserrikoak, komunio aundie esaten zana egiñ ezker, etxeko baserri lanetan edo beste batera morroi bidaltzen zituzten. Auentzako, 16 edo 18 urtekin, gau eskola ematen zun maixu berak neguan beti.

Beste eskola bat bazan errian, Urkin. Emen, bertan apaiz zegoen don Jose Zubizarreta, azkoitiarrak, ematen zuen. Ikasketa guziak euskeraz egiten zituzten eta naiko lana izango zuen ango neska-mutillekin ze, garai artan, Urkin 23 baserri baziren geienak seme-alaba ugarikin.

Garai artako eskola kontu batzuk azalduz, gazteagoa naizela iruditzen zait. ■

Jubilatu bat

Ijito Eguna

Otsailaren 26ean hitzordua eta ijito herriari dagokion moduan, zartagi eta mailu zara-ta kaleetan, koloreak jantzietan, bizar eta biboteak mutikoetan eta batez ere irrifarrak aurpegietan. Beste urte batez Ijito eguna Itsasondon giro onean ospatu da. Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, garbi dago ondo pasa nahi duenak aurkitzen duela modua. Errumaniatik etorriak direla diote batzuek, bestelako lurralde hurrenetatik besteak, gutxi axola digu horrek ez dezatela ahaztu datorren urtean ere zai izango zaituztela.



Makillaje tailerra

Aurten Itsasondoko Udalak, herriko emakumeentzat makillaje ikastaroa antolatu du. Tolosako Beatrizek ematen du saioa asteartetan, 7-9etara eta bertan, herriko 9 emakume parte hartzen ari dira. Hilabete zehar, teknika desberdinak ikasiko dituzte.



Emakume Eguna

Martxoak 8, festa giroan ospatu zuten herriko emakumeek. Gazteek eginiko omenaldiarekin hasi eta 47 emakumeek parte hartu zuten afari goxo batekin bukatu zen eguna. Aurtengo emakume omendua Arantxa Eceiza izan da.



Ziklo-krosa

Aurten ere, azken urteetan bezala, Ijittu Kirol Elkarteak Itsasondoko ziklo-krosa antolatzea lortu du, zenbait oztopo eta arazori aurre egin ondoren. Hasieran, 2011ko urtarrilaren 16rako genuen jarria hitzordua, baina Frantziar munduko kopako lasterketa zela eta, lasterkari onenek hara joateko intenzioa erakutsi zigutenez, antolakuntzak eguna aldatzea erabaki zuen. Astebukaerarik libre ez zegoenez, eguberrietako atera jotzea erabaki genuen -abenduak 30- eta horregatik ospatu genuen aurten astegun batean.

Ziklo-krosa egun bateko lasterketa bada ere, aurretik lan asko eginarazten digu. Aurrekontua 6000€ ingurukoa izaten da. Diru hori lortzeko, urte osoan baliabide ugari izaten ditugu martxan: Udalaren diru-laguntza, txosnaren alokairua, zozketak, kartealeko babesleak eta aurten nobedadea ziklo-kroseko egutegia izan da. Zozketan 588 zenbakia atera da.

Kirol jardunari begiratuta, Euskaltel-Euskadi taldeko txirrindulari ermuarrak lortu zuen garaipena, Iñaki Lejarreta berriztarrarekin lehia estua izan eta gero. Bi hauekin lehia Javier Ruiz de Larrinaga ibili zen, gerora Espainiako txapeldun geratu zena; baina, gurpila zulatu eta denbora asko galdu zuen.

Laugarren postuan lasterketan zehar aurrealdean ibili zen mutiloarra izan genuen: Jon Ander Insausti. 18 urte besterik ez ditu eta dohai handiak ditu ziklo-krosean aritzeko.

Jubenil eta kadete mailan ere goierritarrek izan genituen jaun eta jabe. Jubeniletan, Caja Rural etxeko Peio Olaberria mutiloarra.

Kadete mailan, ez ohiko argazkia ikusi genuen, bi taldekide sartu baitziren eskua emanda: Inokra-Beasain taldeko Patxi Aldanondo eta Alex Aranburu.



Ijittu Kirol Elkartearen izenean eskerrak eman nahi dizkizuegu ziklo-krosaren alde laguntza ematen diguzuen guztioi. Bai errepidea eta bidegurutzak ixteko, lasterketa egunean, bai elkartearen bazkaria egiten diguzuenei, bai babesle eta iragarleei eta baita zuri ere, herritar, gure lasterketa dela-eta eragozpenak jasan behar eta ulertzen gaituzulako.

Datorren urtean ere beste edizio bat antolatuko dugulakoan, agur.

Santa Ageda

Kopla zaharrak dioen bezala, "Santa Ageda bezpera degu Euskalerriko eguna / etxe guztiak kantuz pozteko aukeratua duguna". Eta horrelaxe, esan eta egin. Otsailaren 4an eskolako haur, guraso bertsolari eta trikitilariak elkartu eta Itsasondon zehar Ageda Santuaren koplak abestu genituen.

Ez dakit itsasondooarrok eztarriz sano gabiltzan, baina saiatzen garela ez digute ukatuko, behintzat





Katalin eta amaren tripatxo

Liesbet Slegers

Orrialde garbi-garriak eta ertz biribilduak dituzten txikien-

tzako liburu bereziak dira. Hitzekin eta haur baten begiekin Katalinek "bere mundua" erakutsiko digu: bere etxeko bizimodua, zaintzailearekin duen harremana, nebatxo jaioberriarren etorrera... eta toki guztietan lagunak egingo ditu.



Nur eta magia kanpamentua

Toti Martinez de Lezea

Uda bukatzen ari da eta Nur oso udaleku berezi batera joan da, egiazko magia egiten

den udaleku batera. Handia denean magoa izan nahi du, eta orain lehenengo trikimailuak ikasiko ditu. Oliver eta Txagu Magu magoak ezagutuko ditu. Eta baita beste magia-ikasleak ere. Baina, udalekuan badira misterioak, eta Nurrek eta bere lagunek poliki-poliki argituko dituzte misterio horiek.

LIBURUTEGIKO OHARRA:

Itsasondoko liburutegian zerbitzu berria jarri da. Hain zuzen ere, astearte eta asteazken goizetan arreta zuzena eskainiko da 9:30etatik aurrera. Bertan, arduraduna izango da eta erabiltzaileek txartelak egiteko, zalantzak argitzeko, liburuak topatzeko edota libururua eskatzeko aukera izango du. Interesatzen den libururik ez balego, beste liburutegietatik ekartzeko aukera izango litzateke. Horretarako, astearte edo asteazkenetan, liburutegira gerturatu behar da. Horrez gain, liburutegiko helbidea luzatu nahi da, liburutegira gerturatu ezin duenak bere eskaera egiteko: liburutegi.itsasondo@udal.gipuzkoa.net.



Moroak gara behelaino artean?

Joseba Sarrionandia

Joseba Sarrionandiaren liburu ezberdina duzu Moroak gara behelaino artean? hau. Bereber hizkuntzaren lehenetako gramatika egilea den Pedro Hilarion Sarrionandiak piztutako jakin-minetik abiatuz, liburua saio-lan anitza eta sendoa da. Bertan aurkitu

dituzu pertsonaia historikoak eta gerla koloniaiei buruzko gogoetak, aitormen pertsonalak eta iritzi politikoak, biografia bitxiak eta pasadizo sinesgaitzak, hizkuntzei buruzko ideiak...



La estación perdida

Use Lahoz

Sarri bizitzan gertatzen den moduan, ezusteko berriek bapatean bitzta aldatzen dizute eta hauxe da nobela honen protagonista den Santiago Lanssc-eri gertatzen zaiona. Bizitzak bere jaioterria utzi eta Bartzelonara joatera behartzen du Santiago, orduaz geroztik gainbehera batetan

amiltzan da bitzta, ahalik eta amodioak salbatzen duen arte. Nobela honek XX mendeko bigarren erdialdean Espainiar gizartean ematen diren aldaketak agerian uzten ditu.

(lorezaintza gomendioak)

Hortentsia (hydrangea macrophylla)

Ezaugarriak

Zuhaixka hosto erorkorra da, Japonia eta Txinatik ekarria. Lorezaintzan oso dira nabariak bere lore zuriak, fuksiak, arrosak eta urdinak. Landare horren koloreak lurraren azidotasunari lotuta daude. Oso azidoak diren lurretan lore urdinak izaten dira, lur alkalinoa denean, berriz, gorriak edo arrosak. Kolore zuriko loreak, aldiz, ez daude lurraren azidotasunari lotuta. Hortentsia martxotik irailaren bukaeraraino loratzen da eta bai lorontzian bai lorategietan aldatu dezakegu.

Gure lorategian hortentsia urdinak lortzen ez baditugu, merkatuan aurkituko ditugu hainbat produktu, urari nahastuta. Hala, gure desioa errealitate bihurtu ahal izango dute.

Ingurumena eta exposizioa

Zuhaixka hori erdi itzalean landatu behar da, eguzkiaren izpien zuzeneko berotasunetik urrun. Bestela, hostoetan erredurak aterako baitzaizkio eta hori kolorea hartuko baitute. Gainera, loreak askoz gutxiago irauten dute. Orientaziorik hoberena iparra da.

Ureztatzea

Hortentsia oso exigentea da urarekin, beraz, lurra beti umel mantendu behar da loretan dagoen bitartean. Ahal bada, euri ura erabiltzea komeni da.

Ugalketa eta kimaketa

Landara hau aldaska bidez ugaltzen da, udazkenean. Betebehar hori egiteko 10 zentimetroko adartxo bat hartuko dugu eta hosto guztiak kenduko dizkiogu, goi aldeko 2 edo 3 izan ezik. Adarraren ebakia sustraitze hormonekin bustiko dugu eta lur arinean sartuko dugu. Lur hori %50 hondarra eta %50 turba izango da.

Kimaketa egiteko, lore guztiak zimelduta izan behar ditu, eta hori udazken bukaeran edo negu hasieran izango da. Hortentsia bi urte baino gehiagoko adarretan loratzen da, beraz ez dugu ipurditik kimatuko. Era aproposalan kimatzeke, adarren bi herenak erdi aldean moztuko ditugu eta herenak lurretik hasita 2 edo 3 begitara. Horrekin zuhaixka ez zahartzea lortuko dugu.

Lurra eta ongariak

Lurak Ph azidoa izan behar du. Egokiena nahasketa bat izatea litzateke: hondarra, turba eta lurrustela; eta, baita hone-lako landareentzat merkatuan saltzen dituzte lur bereziak ere. Udaberrian eta udan ezinbestekoa da 15 egunetik behin lurrari ongariak botatzea.



Maixel Garmendia
Izadia Loradenda. BEASAIN
943 88 14 40



(errezeta)

Yogurran babaroisse

Osagaiak: 8 pertsonentzako.

Esne-gaina, litro ½ bat
8 jogurt natural
200gr azukre
5 gelatina orri

Prestakuntza:

Hasteko, esne-gaina harrotu (baso erdi bat aparte utziko dugu). Komeni da oso hotza egotea; ondo harrotu dugunean, azukrea eta jogurtak gehituko ditugu eta guztia ondo nahastuko dugu.

Beste alde batetik, gelatina orriak uretan sartuko ditugu, bigundu daitezten. Behin bigunduta, esne-gain baso erdia berotuko dugu eta gelatinak gehituko ditugu erabat desagertu arte nahastuz. Ondoren, aurreko nahasketari botako diogu eta guztia ondo nahastu dugunean moldetan jarriko dugu eta hozkailuan sartuko dugu, hoztu eta aldi berean gogortu dadin.

Jateko orduan moldetatik hobeto atera ahal izateko, ur berotan moldea sartuz gero errazago aterako dituzue.

Nahi izanez gero, zapore desberdinetako mermeladekin saltsak egin ditzakezue, edota fruta desberdinak egosi ur eta azukrearekin, eta gero txikitu. ■



Jose Ignacio Duhau
Rubioena Jatetxea. BEASAIN
943 88 57 60

Korrika

17. KORRIKA dugu aurtengoa, eta apirilaren 13an zeharkatuko ditu Itsasondoko kaleak euskararen maratoiak. Apirilaren 7an Trebiñon hasiko du ibilbidea euskaren lekukoak, eta hamar egun ondoren, apirilaren 17an Donostian amaituko da KORRIKA. Maitatu, ikasi, ari...euskalakarri, aurtengo KORRIKAREN leloa.



KORRIKARI behar bezelako harrera egin asmoz, hau da Korrika Kulturalaren barruan antolatu dugun egitaraua:

- Martxoak 25: bertso-afaria
- Apirilak 1: antzerki emanaldia, "Prest gaude" obra, 22:00etan, aterpe itxian.
- Ipuin marrazki lehiaketa udala-eskolak antolatu du. Ikastolako hurrek marrazki eta ipuinak egin beharko dituzte. Adinka sailkatuta, gai desberdina landu beharko du talde bakoitzak. Apirilaren 8an lanak entregatu behar dituzte herriko liburutegian eta sariak, apirilaren 15ean ospatuko den Korrika txiki egunean banatuko dira.
- Apirilak 13: KORRIKA
- Apirilak 15: Korrika txikia. Arratsaldeko 5etan Aramatik jaitiera. Ondoren, txokolatada eta gazteek antolatutako jolasak.

Esaera zaharrak

"Amari egindako zorrak ez dira inoiz ordaintzen"

"Aita biltzaile, seme gastatzaile"

Kultur Agenda

Apirila

- 01: Antzerkia, 22:00etan (Prest gaude).
- 03: Mendi irteera: Itsasondo-Usurbil-Beasain.
- 08: Ipuin lehiaketarako lanak aurkeztu behar dira.
- 09: Itsasondoko I. herri eguna. Festa herrian zehar.
- 13: Korrika.
- 15: Korrika txikia.

Maiatza

- Dantza entsaioak hasiko dira San Juanetarako, sorgin dantza ikasteko.
- 15: Mendi irteera.
- 28: Dantzari eguna.

Ekaina

- 02: Dolomitak, ikusentzunezkoa, 20:00etan gaztelekuan.
- 04: Oriora irteera.
- 23: San Juan bezpera.

Telefono interesgarriak

Udaletxea 943 881170

- **Gizarte Langilea**
- **Udal Arkitektoa**
- **Epaitegia**

Haurreskola 943 164831

Herri Eskola 943 887704

Arbel-Aitz Elkartea 943 881339

Lurdes Janari Denda 943 885236

Arrastoa Botika 943 882148

Medikuarenean Txanda Hartzeko

943 805800

Kaxintane Taberna 606 756551

Nautiko Taberna / Izaskun Hotela

943 880012

Izaskun Ileapaindegia 943 160285

Sasieta 943 161555

Traste Zaharrak 943 161590

Taxi (Ordizia) 943 881486

itsasondo.e.o

Herriko Aldizkaria ((12. zk)) Martxo-Ekaina 2011

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Martinez Maitia
Ainara Urteaga
Arantzadi Elkartea
Axier Bazaga
Belen Mendizabal
Danel Etxeberria
Eskolako haurrak
Haizea Arruti
Haurreskolako Hezitzaileak
Iker Mendizabal
Iker Zaldua
Jose Ignacio Duhau
Jubilatuak
M^a Jose Arrizabalaga
Maite Lasa
Maite Riaño
Maixabel Garmendia
Mikel Mendizabal
Miren Seguro
Rosa Aurkia
Rosi Noguera
Unai Agirre

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.net

Lege gordailua: ISSN:
SS-297-2010 2171-5572

**GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
EKAINEAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN**